

**2002tik, urteko 453 milioi eurotik gora ordaindu ditu interesetan**

## **EROSKI-K 30 MILIOI EURO ORDAINDU DIZKIE INTERESETAN MENDEKO EKARPEN ETA OBLIGAZIOETAN INBERTITU DUTENEI**

- **Gaur, urtarrilak 31, ordainduko zaie Mendeko Finantza Ekarpenei jabeei, eta otsailaren lehen, berriz, Mendeko Obligazioen jabeei**
- **2002an MFEetan inbertitu zuenak bere inbertsioaren %96 jaso du interesetan, eta %105, Mendeko Obligazioekin trukatu bazuen**
- **Aurtengo urteko interesak %6,553an gelditu dira finkatuta 2002an eta 2004an jaulkitako MFEetarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta %6,053an 2007ko jaulkipenerako**

**Elorrio, 2024ko urtarrilaren 31.-** [EROSKI](#)k, gaur, urtarrilak 31, abonatu ditu Mendeko Finantza Ekarpenei dagozkien urteko interesak, %6,368ko interes tasan 2002ko eta 2004ko jaulkipenatarako, eta %5,868tan 2007korako. Otsailak lehen, era berean, EROSKIk Mendeko Obligazioen urteko interesak abonatu ditu, %6,368ko tasan. Guztira, 30 milioi euro abonatu dizkie EROSKIk interesetan inbertsio titulak dituztenei.

EROSKIk MFEen lehen jaulkipena egin zuenetik (2002an), kooperatibak zuzen ordaindu dizkie urteko interesak inbertsiogileei; dagoeneko, 453 milioi euro guztira. MFEak eta Mendeko Obligazioak ordaintzeko, zeina ez baita kooperatibaren emaitza ekonomikoen araberakoa, erreferentzia gisa Euriborra gehi hiru puntu hartzen du MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenatarako eta Mendeko Obligazioetarako eta %2,5eko diferentziala MFEen 2007ko jaulkipenerako.

Abonu horren bitartez, MFEa 2002an hartu zuen inbertsiogile batek dagoeneko hasierako inbertsioaren %96,1 jaso du interesetan, eta %105,1 orain urte bat iraungitzen diren Mendeko Obligazioen trukea egin bazuen. MFEen 2004ko inbertsiogile batek, berriz, %83,6 hartu du dagoeneko interesetan, eta, trukea egin

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

bazuen, %92,7; eta 2007ko batek bere inbertsioaren %58,3 jaso du, edo %66,4, trukea egin bazuen.

2024. urterako, interes tasa %6,553an geldituko da (%3,553+ %3ko diferentziala) MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenatarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta %6,053an (%3,553 + %2,5eko diferentziala) 2007korako, eta guztiak abonatu dira datorren urtean.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)